

**Ugao-Miraballesen emakumeen aurkako
indarkeria matxista kasuetarako jarduteko eta
koordinatzeko II. Protokoloa. 2024**



AYUNTAMIENTO DE LA N. VILLA DE
UGAO-MIRABALLES
HIRI PRESTUAREN UDALA
BIZKAIA

Aurkibidea

1.	Aurkezpena	3
2.	Konpromisoa eta akordioa	4
3.	Lege-esparrua	7
4.	Kontzeptu-esparrua eta terminologia	9
5.	Helburu orokorra eta espezifikoak	12
6.	Jarduteko printzipio orokorrak	13
7.	Indarkeria matxistaren aurreko erantzuna	14
a.	Esku hartzen duten sistemak eta erakundeak: berdez Ugao-Miraballes.....	16
b.	Detekzio, prebentzio eta arreta zerbitzuak	17
c.	Jarduteko prozedura orokorrak	17
1.	SARRERA PUNTUAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK	17
2.	SEXU-ERASO KASUETARAKO ARRETA.....	19
3.	LARRIALDIKO ARRETA	22
4.	OHIKO EGOERETAKO ARRETA.....	26
8.	Koordinazioa eta sareko lana	35
9.	Jarraipena eta ebaluazioa.....	37
10.	Berrikuspina.....	37
11.	Datuen babesa	38
12.	Eranskinak	39
1.	DOK. GIZARTE ZERBITZUEN FITXA	40
2.	DATU PERTSONALAK TRATATZEKO, LAGATZEKO ETA KONTSULTATZEKO BAIMEN INFORMATUA.....	42
3.	DOK. GENERO-INDARKERIAKO EGOERAREN EGIAZTAPEN ADMINISTRATIBORAKO ESKABIDEA.....	44
4.	DOK. BABES-AGINDUA ESKATZEKO INPRIMAKIA	45
5.	DOK. IKASTETXEEKIKO KOMUNIKAZIOA	51
6.	DOK. EMAKUMEEN AURKAKO AGERIKO ERASO SEXUAL EDO FISIKOAGATIKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA	52
7.	INTERESEKO TELEFONOAK ETA HELBIDEAK.....	53
	UGAO MIRABALLESKO INDARKERIA-PROTOKOLOKO EKINTZA-PLANA	54

1. Aurkezpena

Asko izan dira azken urteotan gertatu diren gizarte eta lege aldaketak. Hori horrela, premiazkoa da II. Protokoloa egitea, lege-esparrua egokituz eta arreta eta koordinazioa hobetuz, egungo egoerari erantzuteko.

Ilido horretan, protokolo honen eguneraketa udal-arretako prozeduretan eragina duten hiru lege-aldaketaren ondoren garatzen da:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko **4/2005 Legearen bigarren aldaketaren** VII. kapitulua. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptua zabaltzen da, beste modu eta esparru batzuk sartuz. Arreta-ereduak ere aldatzen ditu, eskumen-eremu desberdinak azpimarratuz.
- **8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa**, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babestekoa: Adingabeen babesari buruzko berrikuntzak sartu dira, eta horiek toki- eta foru-arretako ereduei eragiten diete.
- **10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa**, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa: Lege berri hau indarrean sartzean, sexu-indarkeriaren biktimek genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimen eskubide berberak izango dituzte, eta, beraz, protokoloen esparruan koordinatu beharko da haien arreta.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa**. 2023ko urtarrilaren 19an sinatua.

2. Konpromisoa eta akordioa

Indarkeria matxistaren biktimenezako arreta hobetzeko erakundeen arteko II. Jarduera eta koordinazio protokoloa sinatu duten erakundeek

Adierazten dute

Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, eta oztopo bat da oinarritzko eskubide eta askatasunak erabat egikaritzeko. Emakumeen aurka egiten da, emakume izate hutsagatik. Hainbat modu ditu, eta larriki erasotzen du bere duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurka, eta, ondorioz, lehen mailako arazo soziala eta osasun publikoko arazoa da. Botere publikoek emakumeei indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko jardun behar dute.

Emakumeen aurka egiten den indarkeria matxista sexuaren eta generoaren arabera desberdintasun-egoera estruktural batean oinarritzen da, eta horrek emakumeak eta “femeninotzat” jotzen den guztia gizonen eta “maskulinotzat” hartzen denaren mendeko posizioan kokatzen ditu. Indarkeria, desberdintasunaren adierazpena izateaz gain, kontrol sozialerako funtsezko tresna da desberdintasun hori erreproduzitu eta betikotzeko.

Indarkeria hori adin, talde sozial, kultura eta herrialde guztietan gertatzen da, eta oso arazo sozial handia da. Horregatik, funtsezkoa da erakundeen esku-hartze koordinatua, diziplina anitzekoa eta genero-ikuspegiduna antolatzea, prebentzioa, detekzioa, babesa, arreta integrala eta erreparazioa bermatzeko osasun-, gizarte-, epai- eta polizia-alderdietan; izan ere, indarkeria-mota horren biktimak eta indarkeria horretatik bizirik irten direnak zaurgarritasun bereziko egoeran daude, indarkeria-mota horren izaeragatik, eta indarkeria horren kausak eta ondorioak dimentsio anitzekoak direlako.

Esku-hartze hori 2000tik artikulatzeko, urte horretan onartu baitzen *“Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Udal Plana”*, dagoeneko zehazten zen plan horren 7. helburuan tratatu txarrak edo sexu-erasoak jasateagatik gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeen integrazioa lortzeko helburua. Ondoren, 2009. urtean, *“Ugao-Miraballesko emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako II. Udal Plana 2009-2012”* gauzatzen hasi zen; eta, 2010 urtean, *“Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobe emateko erakundeen arteko I. Tokiko Protokoloa”* idatzi zen plan horren esparruan.

Ordutik, tresna horrek etengabeko bilakaera izan du, eta, orain, *‘IV. Berdintasun Planaren’* esparruan eta berdintasun zerbitzuak bultzatuta, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza ziurtatzeko hainbat neurri sustatzen dira.

Protokolo horretan jasotzen denez, helburu nagusia da indarkeria matxistaren adierazpen larrienei erantzuteko zereginak eta urratsak finkatzea. Eguneroko erasoen, eraso larrien edo hilketa matxisten aurrean eman beharreko pausoak zehaztuta izatea, Udalak, mugimendu feministak eta Ugaoko bizilagunek erantzun bateratua eta irmoa eman ahal izateko.

Eta, azkenik, protokolo berri hau egitea, legeriaren arloko aurrerapenak jasotzen dituen.

ETA ADOSTEN DUTE

LEHENENGOA: Erakundeen arteko Bigarren Jarduera eta Koordinazio Protokoloa sinatzea. Protokolo horrek Ugao-Miraballesko Udalerrian indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen, seme-alaben, nerabeen eta adingabeen ikerketan, detekzio goiztiarrean, arretan, babesean eta suspertzean inplikaturako erakundeen koordinazioa hobetzeko mekanismoak zehazten ditu, ematen zaien arreta hobetzeko eta bizitza-proiektu aske bati ekin ahal izateko.

BIGARRENA: Inplikaturako eragileen jarduera protokolo honetan hartutako printzipio eta konpromisoetara egokitzea, inplikaturako eragileek berek zehaztutako jarraibideetatik abiatuta, haien eskumen-eremuak errespetatuz eta egiten duten esku-hartzea ahalik eta gehien errespetatuz.

HIRUGARRENA: Erakunde bakoitzean protokoloa hedatzeko, ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak bideratzea, protokolo honetan adostutako koordinazio-lanen jarraipena egiteko.

LAUGARRENA: Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak bermatzea, eta protokolo honen helburuak lortzeko beharrezkoak diren laguntza- eta lankidetzak tresnak garatzea. Horretarako, datuak helburu estatistikoekin biltzen lagunduko da, betiere datuak babesteko indarrean dagoen legediaren esparruan, udalerriko egoera hobeto ezagutzeko eta protokolo honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

BOSGARRENA: Erakunde arteko Jarduera eta Koordinazio Protokolo honen edukiak zabaltzea erakunde sinatzaile bakoitzeko kide diren edo haien mende dauden profesional guztien artean, baldin eta, aldi berean, indarkeria matxistak eragindako emakumeei arreta ematen inplikaturak badaude.

SEIGARRENA: Protokolo honetan ezarritako koordinazio-mekanismoen barruan, indarkeria matxistaren aurkako borrokan eta emakumeen eta, bereziki, diskriminazio anizkoitzaren ondorioz kalteberatasun handieneko egoeran egon daitezkeen emakumeen eskubideen defentsan inplikaturak dauden beste gizarte-eragile, zerbitzu publiko eta gizarte zibileko erakunde batzuen parte-hartzea bultzatzea.

ZAZPIGARRENA: Biktimek aurrez aurre duten indarkeriaren ondorioz jasaten dituzten kalte guztien ordaina sustatzea, eta ahaldundutako prozesu indibidualak eta kolektiboak indartzea, haien eskura jarritzeko behar adina baliabide eta zerbitzu, iragarriak eta kalitatezkoak. Erreparazioa funtsezkoa da indarkeriari aurre egin behar dioten biktimek bere onera etortzeko prozesuan, eta printzipio hauei erantzun behar die: lehengoratzeko, kalte-ordaina, birgaitzea, gogobetetzea eta berriro ez gertatzeko bermea.

ZORTZIGARRENA: Protokoloaren funtzionamendua etengabe ebaluatzeko prozesu bat garatzea, arretaren funtzionamendua hobetzeko beharrezkoak diren hobekuntzak berehala txertatu ahal izateko. Urtero berrikusiko da, oro har, eta zerbitzuen eta tartean dauden gizarte-eragileen parte-hartzea ziurtatuko da, arretaren hobekuntzen eraginkortasuna egiaztatzeko.

BEDERATZIGARRENA: Protokolo hau 2024-2027 aldian egongo da indarrean. Urtero luzatuko da, aldeetako bat ados ez badago izan ezik, eta, kasu horretan, edukia berrikusiko da. Protokolo honek onartzen denetik izango ditu ondorioak, eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, Protokolo hau sinatzen dute.

Eragile sinatzaileak

Ertzaintza

Ibaizabaleko ertzain-etxeko unitateburua

Osakidetza

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentea

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte
Kohesio eta berdintasun Saileko zuzendaria

Ugao-Miraballesko Udala
Alkatea

3. Lege-esparrua

Ugao-Miraballesen emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuetarako jarduteko eta koordinatzeko protokoloak berdintasunaren, prebentzioaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztearen arloko nazioarteko, estatuko eta EAEko araudiaren postulatuei heltzen die.

Gaur egun, araudia zabala da maila guztietan, eta azpimarragarrienak dira:

Nazioartean, ezinbestekoa da Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa, **Istanbulgo Hitzarmena** izenaz ezagunagoa, juridikoki loteslea eta Espainiak 2014an berretsia. Lege-tresna hori Europako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko tresna indartsuenetako bat da.

Hitzarmen hau ibilbide historiko baten emaitza da. 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin ondoren, berariazko tresnak garatu ziren emakumeek giza eskubide gisa dituzten eskubideak finkatzeko. Ilido horretan, Emakumearen Eskubide Politikoei buruzko Konbentziotik (1952an onartua), berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako arau-garapena bideratu duten mugarri nagusiak honako hauek izan dira: Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW), 1979an, eta haren protokolo fakultatiboa (1999); eta Emakumeari buruzko munduko Konferentziak, 1995ean Beijingen egindakoa izanik berdintasunerako nazioarteko agendan inflexio-puntu bat ezarri zuena.

Estatuan, gaiari buruz indarrean dagoen araudiari dagokionez:

- **1/2004 Lege Organikoa**, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka babesa integrala emateko neurriei buruzkoa;
- **1/2021 Legea, martxoaren 24koa, Genero Indarkeriaren Biktimak Babesteko eta Laguntzeko Presako Neurriena**; adierazi behar da emakumeetara mugatzen dela. 2015etik aurrera, ezkontide direnen edo izan direnen aldetik edo antzeko afektibitate-harremanen bidez haiekin lotuta dauden edo egon direnen aldetik –baita bizikidetzarik ez dutenek ere– indarkeria jasaten duten edo jasan duten haurrak ere biktima izango dira.
- **35/1995 Legea, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntza eta laguntzei buruzkoa, eta 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena.**
- **3/2007 Lege Organikoa**, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa, funtsezko testua berdintasunerako, emakumeen eskubideentzako eta, ondorioz, indarkeriaren prebentziorako.
- **10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa**: Lege berri hau indarrean sartzean, sexu-indarkeriaren biktimek genero-indarkeriaren eta

etxeko indarkeriaren biktimen eskubide berberak izango dituzte, eta, beraz, protokoloen esparruan koordinatu beharko da haien arreta.

- **4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa.** Berdintasunari buruzko jarduera-printzipio orokorraren garapenean ezarritakoarekin bat etorriz, non bermatzen baita biktimen eskubideak benetan gauzatuko direla, baldin eta biktima horien inguruabar pertsonal eta sozialek zailtasun handiagoa badakarte laguntza osoa eskuratzeko, eta, bereziki, desgaitasuna duten emakumeek eta emakume migratuek, haien administrazio-egoera edozein dela ere.
- **3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa,** desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala erreformatzen duena.
- **8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babestekoa**

Eta 2017an sinatutako genero indarkeriaren aurkako **ESTATU ITUNA**, konpromiso eta neurri zehatzak planteatu zituen genero indarkeriaren aurrean erakundeen erantzuna hobetzeko, 1/2004 Lege Organikoan definitzen den bezala, baita beste indarkeria modu batzuk bistaratzeko eta artatzeko ere, hala nola sexu esplotaziorako salerosketa, emakumeen genitalen mutilazioa edo behartutako ezkontza. Hortik abiatuta, zenbait arau onartu dira, hala nola 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko presako neurriena, zeinak, beste neurri batzuen artean, zabaldu egin baitzuen biktima horiei arreta emateko sistemaren zerbitzuek indarkeriaren biktima egoera administratiboki egiaztatzearen modua (abenduaren 2ko Ebazpena, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Akordioa, indarkeria egoerak egiaztatzeari buruzkoa). Lege-dekretu horrek hainbat aldaketa ekarri ditu arau ugaritan, hala nola Genero-indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluen 2. eta 5. paragrafoak, biktimentzako gizarte-laguntzei buruzkoak, eta pentsatzekoa da datozen urteetan ere garatzen jarraituko dela estatu-mailako arau-esparrua Itun honi dagokionez.¹

Euskal Autonomia Erkidegoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzeari buruzko **otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** bigarren aldaketa egin zen. 2022an aho batez onartu zen Eusko Legebiltzarrean, eta prozesu sozial eta politiko baten emaitza izan zen, berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko emakumeek eta gizarteak oro har dituzten eskaerei eta beharrei erantzunez.

Legeak ezartzen duenez, “euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hezkuntza, osasun, polizia, justizia, lan eta gizarte arloko profesionalek modu proaktibo eta koordinatuan jarduten dutela ziurtatu behar dute, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasu zehaztu

¹ Genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren akordioa

gabeak detektatzeko eta behar bezala bideratzeko. Horretarako, inplikaturako erakundeen artean koordinatuta landutako protokoloak daudela eta aplikatzen direla bermatu behar dute, dagozkien adierazleak eta jarduteko jarraibideak barne hartuta”.

Eta, zehazki, toki-eremuari dagokionez, legeak honako hau xedatzen du: “foru- eta toki-administrazioek sustatuko dute beren lurralde-eremuan lankidetzak-akordioak eta jarduketak-protokoloak har daitezten, aurreko bi paragrafoetan aipaturako akordioak eta protokoloak garatzeko, zehazteko eta bakoitzaren errealitatera egokitzeko, horietan inplikaturako arreta-sistema guztiek modu proaktiboan parte hartu behar baitute”.

Testuinguru horretan, 2023ko urtarrilean, **EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundeen arteko III. Akordioa** sinatu da.

4. Kontzeptu-esparrua eta terminologia

Protokolo hau aktibatzeak, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartuko dira aurreko paragrafoan aipaturako legeriatik datozen indarkeria-definizioak: Istanbulgo Hitzarmena; 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriak buruzkoa; 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriak buruzkoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzarakoa, eta 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldatetarena, eta **EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundeen arteko III. Akordioa**.

III. Akordio hau kontuan hartuta²:

*Emakumeen aurkako **indarkeria matxistatzat** hartzen da lege horretan ezarritakoa: “emakumeen aurka egiten den indarkeria oro, neska eta nerabeak eta emakume transexualak barne, emakume izateagatik, edo neurritz kanpo eragiten diena, bai eremu publikoan, bai pribatuan”.*

*“**Indarkeria** egitezkora zein ez-egitezkora izan daiteke, eta hori gauzatzeko bitartekoak fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak izan daitezke, mehatxuak, larderiak eta hertsapenak barne, baldin eta kalte, sufrimendu edo galera fisiko, sexual, psikologiko, sozial, sozioekonomiko edo ondarezkora eragiten badute”.*

*“Emakumeen aurkako **indarkeria matxista dira** bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barruko indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatuen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, nahitaezko ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, bortxaketa edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta neskatuen duintasuna, osotasuna edo*

² Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa.

askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria mota ere, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko edo autonomia-erkidegoko araudian aurreikusita badago. Hori guztia, edozein eremu publiko edo pribatutan gertatzen direla ere, eta horrek barne hartzen ditu, baina ez da mugatzen, familia, lan, hezkuntza, osasun, kirol eta komunitate esparruetara, komunikabideetara, aisialdi eta jai espazioetara eta ingurune birtualera".

*Era berean, emakumeen aurkako **indarkeria matxistatzat** hartzen da "biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egindako indarkeria, bai eta haien ingurune hurbilaren edo afektiboaren aurka egindakoa ere, batez ere seme-alaben edo beste senide batzuen aurka, emakumea atsekabetzeko borondatearekin".*

Arau horren arabera, genero arrazoiengatik indarkeriazko jokabideak lehen pertsonan pairatzen dituzten emakume, nerabe eta neskatoez gain, "emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima dira haurrak, nerabeak eta mendeko beste pertsona batzuk, baldin eta indarkeria hori gauzatzen den ingurune batean bizi badira eta, beren kalteberatasun-egoeragatik, indarkeria horrek zuzenean eragiten badie".

"Biktima" kontzeptuaren barruan sartzen dira, halaber, indarkeriatik "bizirik irten" eta errehabilitazio-prozesu bati ekin dioten pertsonak, nazioarteko itunetan eta gaiari buruzko lege-testuetan ezarritakoaren ildotik.

*Era berean, kontuan hartu behar da irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoak, ezartzen duela **sexu indarkeriak** "baimendu gabeko edo bizitza sexualaren garapen askea baldintzatzen duen edozein ekintza sexual gisa ulertu behar direla, edozein eremu publiko edo pribatutan gertatzen direnak, eremu digitala barne". Nolanahi ere, sexu-indarkeriatzat hartzen dira Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuaren VIII. tituluaren aurreikusitako delituak, emakumeen genitalen mutilazioa, ezkontza behartua, sexu-konnotaziodun jazarpena eta sexu-esplotaziorako salerosketa.*

Indarkeriaren kontzeptualizazio hori onartzeak esan nahi du Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoarekin (1/2004 Lege Organikoa) eta II. Akordioarekin alderatuta jarduteko esparrua zabaltzea, kontuan hartzen baitira emakumeen aurkako indarkeriaren beste adierazpen eta modu batzuk, bai eta bikotekideak edo bikotekide izandakoak emakumeen aurka egindako indarkeria, familia-eremuan beste senide batek egindakoa eta eremu horretatik kanpoko sexu-indarkeria ere. Aldez aurreko koordinazio-akordioetan landu diren indarkeria-mota horiek izango dira aurrerantzean ere ardatz nagusiak, lortutako aurrerapenak sendotzeko xedez.

Protokolo honen babes-subjektua indarkeria matxistaren adierazpenen bati aurre egiten dioten edo aurre egin dioten emakumeak, haien seme-alabak, izango dira, legeak zehazten dituen espazio eta moduetan, bai eta indarkeria matxistaren kargu dauden adingabeak ere, bidezkoa den kasuetan. Era berean, bereziki kalteberak eta/edo mendekoak diren pertsonak aipatzen ditu (ikus adinekoak, mugikortasun murriztua duten pertsonak, indarrean duten gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza neurriak dituzten pertsonak, etab.), horiek babestu ezean, babesgabetasun bereziko egoeran geratuko bailirateke. Erakunde guztiek, beren eskumenen neurrian, emakumeen aurkako zuzeneko indarkeriaren forma eta gune guztiei erantzungo diete, eta gainerako erakundeekin koordinatuko dira protokolo honen helburuak lortzeko.


Indarkeria matxistak indarkeria sexista barne hartzen du, bai eta beste indarkeria matxista mota batzuk ere, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia. Indarkeria sexista izango litzateke, edo barne hartzen du.



Indarkeria horiek hainbat modutan isla daitezke



Azkenik, indarkeria hori eremu guztietan gerta daiteke.



5. Helburu orokorra eta espezifikoak

Protokolo honen helburu orokorra erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea da, Ugao-Miraballesko Udalean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak detektatzeko eta artatzeko, arreta integrala, egokia, espezializatua eta kalitatezkoa, babesa eta erreparazioa bermatzeko, indarkeriarik gabeko bizitza-proiektu bati ekin ahal izan diezaioten.

Eskubide horiek emakume seme-alaba guztiei bermatu beharko zaizkie, haien ardurapean dauden pertsonekin batera, haien jatorria, administrazio-egoera, erlijioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial edozein dela ere.

Helburu espezifikoak:

- Etengabeko koordinazio egonkorra: Erakunde sinatzaileen koordinazio iraunkorra eta egonkorra bultzatzea, informazioa sortu eta transmititu ahal izateko (legaren esparruan), arreta integrala eskaintze aldera.
- Jardutako jarraibideak: Jardutako jarraibide eta irizpide homogeneoak eskaintzea
- Bigarren mailako biktimizazioa saihestea: Praktika profesionalak ez du asistentzialista, paternalista, biktimista eta etnozentrikoa izan behar; izan ere, jardura desagoki batek emakumeen kaltea eta zaurgarritasuna areagotzen ditu, eta bigarren mailako biktimizazioa indartzen du.
- Arreta integrala, interseksionalitatea kontuan hartuta (emakume migratzaileak, arrazializatuak, dibertsitate funtzionala, adineko emakumeak, LGTBIQ+ errealitateak eta sexu-genero dibertsitatea...).

- Kasuak detektatzea eta ibilbidearen jarraipena egitea: Kasuak detektatzen laguntzea eta arreta ematen duten baliabideak erabiltzen dituzten emakumeek jarraitzen dituzten ibilbideen jarraipena egitea.
- Baliabidea-sarea: Prebentzio-, detekzio-, arreta-, babes- eta berreskuratzeko-lanekin konprometitutako baliabideen sare oso bat osatzea, bai eta horien eraginkortasuna hobetzea ere, emakumeen ahaldundutze indibidual eta kolektiboaren ikuspegitik.
- Inpaktuari buruzko informazioa: Udalerrian geratzen den indarkeriaren egoerari buruzko informazioa sortzea, arreta- eta koordinazio-politikak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko, indarkeriaren eragina ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleen bidez.
- Ikuspegi partekatuak: Indarkeria matxistaren arloan printzipio, ikuspegi eta hizkera partekatuetatik jarduten duten baliabide koordinatuen sare bat osatzea.
- Trebakuntza: Protokoloa osatzen dutenen prestakuntza eta sentsibilizazioa indartzea, detekzio, arreta, konponketa eta arreta espezializatu integral eta ahaldundutzailearen ikuspegitik begirada zabala emanez.
- Erreparazioaren printzipioa: Indarkeria matxistatik bizirik irten diren emakume biktimen erreparazio printzipioa onartzea, erreparazio ekintzen bidez, lehengoratzeko, kalte-ordain, errehabilitazio, gogobetetze eta ez errepikatzeko bermearen printzipioetan oinarrituta
- Erakundearen gaitzespen publikoa Indarkeria matxistarekiko gaitzespen sozialerako eta zero tolerantziarako erakundearen erantzun publiko egokirako jarraibideak bermatzea.
- Etengabeko ebaluazioa. Egun dauden jarraipen-adierazleen datuak biltzea, parte hartzen duten erakundeei eta jardueraren-eremuei ebaluazio koordinatua eta etengabea egitea ahalbidetuz, jardueraren bateratua planteatutako helburuetara etengabe egokitu ahal izateko.

6. Jarduteko printzipio orokorrak

Erakundearen **konpromiso politiko eta soziala**, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa.

Genero-indarkeria eta indarkeria matxistak desagerraraztea izan behar da tokiko erakundearen jardueraren ardatza, udalerrian errazago detektatzen eta borrokatzen baitira erasoak. Emakumeen aurkako indarkeria arazo konplexua eta egiturazkoa denez gizarte osoarentzat, baina, batez ere, indarkeria pairatzen duten emakumeentzat, oinarritzko printzipio batzuk ezarri behar dira.

Indarkeriaren biktima den emakumearentzako eta haren seme-alabentzako arreta integralean parte hartu behar duten **erakundearen arteko koordinazioa**, berdina izanik zein erakundetatik sartu den, egitatea zein den eta prozesua amaitu arte. Sareko lanaren eta esparru desberdinen ondorioz, indarkeria matxisten biktima den emakumea ez da berriro biktimizatzen.

Berriro biktimizatzea saihestea. Esku-hartzearen lehentasunezko helburua berriz ez biktimizatzea denez, erakundearen indarkeria saihesten saiatuko gara. Horrek koordinazio ona eskatzen du, kontakizunaren alferrikako errepikapenak saihesteko, bai eta arreta bat ere, non prozesua pertsona bakoitzari argi eta egoki azalduko zaion, epaitu gabeko entzute batekin eta fokua pertsona bera eta haren erabakiak izango diren.

Berdintasuna. Biktima guztiei bermatu beharko zaie arreta, inolako diskriminaziorik gabe egoera zibila, orientazio sexuala, adina, sinesmena edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko edo maila ekonomiko bateko kide izatea edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sentzoriala edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial dela-eta.

Behar diren neurriak hartuko dira biktimek beren eskubideak benetan baliatu ahal izango dituztela bermatzeko, baldin eta haien inguruabar pertsonal eta sozialek zailtasun handiagoa badakarte laguntza osoa eskuratzeko, eta, bereziki, desgaitasuna duten emakumeen eta emakume migratuen kasuan, haien administrazio-egoera edozein dela ere, eta udalaz gaindiko baliabideetara bideratuko dira, beharrezkoa izanez gero.

Bereziki, desgaitasuna duten emakumeek informazioa eta baliabideak eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira: garraiorako laguntzak, laguntzak, zeinu-hizkuntzako interpreteak, braillez egindako dokumentuak, etab.

Era berean, beste jatorri batzuk dituztelako komunikazio-hizkuntza gaztelania edo euskara ez duten emakumeen hizkuntza-oztopoak gainditzeko edo arintzeko neurriak hartuko dira. Emakume horiei gogoraraziko zaie oso garrantzitsua dela erroldatzea eskatzea, gizarte-babeseko sareko oinarritzko prestazioak eskuratzeko bide gisa.

Diziplinartekotasuna ikuspegi integral batetik egitea, emakumea sustatuz, ahalduz pertsonaletik hasi eta erabat errehabilitatu eta gizarteratu arte.

Zeharkakotasuna, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben beharrei aurre egiteko. Etxebizitza, lana...

Autonomia Emakumeari bere errehabilitazio eta erreparazio sozialera egokitzen diren tresnak ematea, ahalduz pertsonal eta feministaren bidez bere erabakiak hartu ahal izan ditzan, beharrezkoa ez den gehiegizko babesa edo emakumearen infantilizazioa saihestuz.

Erreparazioaren printzipioa, ahalduz bideratua. Horren ondorioz, biktimei-bizirik irten direnei arreta ematen dieten zerbitzu publikoek maila guztietan jasandako kaltea artatzeko ekintzak abiarazi behar dituzte, eta indarkeriaren ondorioei arreta bermatzeko lan egin behar dute, baita beren eskubideak urratzea ahalbidetu duten baldintzak ez errepikatzea bermatzeko neurriak hartu ere.

7. Indarkeria matxistaren aurreko erantzuna

Indarkeria matxistako egoeretan sortzen diren premia ugariak erantzuteko, bai emakumeentzat, bai haien ondorengoentzat eta haiekin bizi direnentzat, autonomia erkidegoak hainbat sistema eta maila instituzionaletatik eskaintzen diren zerbitzu eta prestazioen sare bat du.

Protokolo hau **EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearen arteko III. Akordioaren** barruan kokatzen da. Akordio horrek indarkeria matxistako egoeretan esku hartzen duten sistema, erakunde eta eragile guztiak biltzen ditu, bakoitzak bere koordinazio-protokoloarekin.


Batzuetan, eragile horiek aldi berean jarduten dute beste batzuetan, beren jarduera osagarriak elkarri lotuz erantzun integrala emateko. Horregatik, beharrezkoa da maila eta prozedura guztiak antolatzea eta koordinatzea.

Udalak, herritar zibil antolatuekin batera, eraso matxisten aurkako jarrera aktiboa eta batua erakusteko, eta erantzun koordinatua emateko, erakundeen arteko komunikazio prozedura bat aktibatuko du.

Eraso bat gertatzen den bakoitzean elkarretaratze batera deituz. Elkarretaratze hori, kaltetuak edozein ekintza egiteko alde aurretik eta berariaz baimena emanda, indarkeria matxistaren biktima den emakumearen eta bere seme-alaben erabakiak errespetatuz eta anonimatua mantenduz egingo da, kaltetuak hala nahi badu, bere eskubideak babestu ahal izateko.


Ugao Miraballesko Udalak ADIERAZPEN PUBLIKO bat egingo du indarkeria matxistaren aurrean, biktimari babes publikoa eta instituzionala emanez, eta betiere haren baimenarekin, gizarte honetan bizi den pentsamolde matxista ezabatzeko balioko duen balio aldaketa baten alde lan egiteko klase politiko osoaren konpromisoarekin.

a. Esku hartzen duten sistemak eta erakundeak: berdez Ugao-Miraballes



* Esmatu-k astelehen eta osteguneko ordutegia du Ugaon

b. Detekzio, prebentzio eta arreta zerbitzuak



c. Jarduteko prozedura orokorrak

1. SARRERA PUNTUAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK

Ugao-Miraballesen indarkeria matxistaren biktimen sarbideak udal, foru eta autonomia erkidegoetako zerbitzuak dira. Arreta-gune izateaz gain, zerbitzu horiek zeregin garrantzitsua dute indarkeria detektatzeko gune gisa. Detekzio horrek eragin zuzena izango du biktimek etorkizunean jaso dezaketen esku-hartzean.

Detekzioa da biktimak halakotzat hartzen edo hitzez adierazten ez dituen emakumeen aurkako indarkeria matxista egoerak identifikatzea. Erakundeek, kasu horietan, izaera proaktiboa izan behar dute, eta beharrezko laguntza- eta jarraipen-jarduerak aktibatu behar dituzte, loturak sortzen dituzten eta emakumearen ahalduztze-prozesua indartzen duten prozesuak errazteko, indarkeria desnaturalizatzea lortuz, biktima prest sentitzen denean zer laguntza-baliabide formal eta informal dauden identifikatu ahal izateko.

Protokolo hau sinatu duten instituzio eta erakundeek konpromisoa hartzen dute detekzio goiztiarrerako jarduerak hobetzeko, beren langileen artean indarkeria matxistaren adierazleak identifikatzen lagunduko duen prestakuntza eta informazio materiala zabaltzeko, bai eta biktimei laguntzen dieten eskubide eta baliabideei buruzko informazioa biltzen duten beste material batzuk eta, beharrezkoa izanez gero, informazio gehiago edo berehalako laguntza lortzeko bitartekoak ere.

Detekzio goiztiarreko agenteak dira, harremanetarako lehen puntu baitira:

Udaltzaingoa- Ertzaintza

Gizarte Zerbitzuak

Barrualde ESI osasun-zentroa. Galdakaoko Ospitalea

Berdintasun Zerbitzua

Protokoloaren eragile laguntzaileak

ikastetxeak
gaztelekua
mugimendu feminista
sindikatuak
emakumeen elkarteak
kultura- eta kirol-erakundeak

Gizarte-taldeak, elkarteak eta erakundeak bultzatu behar dira, indarkeria matxisten detekzioan inplika daitezkeen eragile gisa.

Indarkeria matxistako udal-arretan, honako kasu hauek bereizten dira:

Etengabeko arreta: indarkeria matxista kasuak eta berriak ez diren sexu erasoak artatuko dira.

Premiazko arreta: indarkeria matxista kasuak eta sexu eraso berriak artatuko dira

Jarraian aurkezten diren jarduera-ildoetan, emakumeen aurkako indarkeria matxista detektatu ondoren jarraitu beharreko urratsak ezartzen dira.

2. SEXU-ERASO KASUETARAKO ARRETA

Kasu horietan, bi egoera bereizi behar dira:

- Oraitsuko sexu-indarkeria kasu bat 240 ordu eta 10 egun baino lehen gertatutakoa izango da.
- Sexu-indarkeria gertatu zenetik 10 egun baino gehiago igaro direnekoa.

2.1 Oraitsuko sexu-erasoen aurreko premiazko arreta

Biktimari lehen arreta aurrez aurre edo telefonoz eman dakioke. Telefonoz bada, deia jasotzen duen zerbitzuak baloratuko du biktimaren etxera edo dagoen lekura joan behar den, bai eta esku-hartze egokia, medikoa edo polizia antolatu behar den ere, eta berehalako arriskuaren balorazioa egin biktimaren bizitza babesteko.

Lehen baliabidea, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, herritarrei arreta emateko ordutegitik kanpo badago, Barrualde ESiko osasun-zentroa, udaltzaingoa edo biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak, halakorik izanez, artatzen dituzten eragileak, *“lankidetzan arituko dira Ertzaintzarekin, eta informazioa partekatuko dute legez kontrako penala ikertzeari eta argitzeari dagokionez. Esplizituki onartu ez duen informazioa partekatu behar izanez gero, komeni da jakinaraziko denaren eta izan ditzakeen ondorioen berri ematea, harekiko lotura babesteko”*. EAEko Indarkeria Matxistaren Biktimei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Akordioaren jardura koordinatuaren protokoloaren arabera.

Bestalde, *“Gertakariaren lehen jakinarazpena jasotzen duen polizia-kidegoak agertutako pertsona artatuko du, EBAn (etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren delituengatiko espedienteen kudeaketa partekatuen sistema) jasota dagoena kontuan hartuta, azken arrisku-balorazioa erreferentziazat hartzeko”*.

Lehen arretako eragile horiek Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Larrialdia Koordinatzeko Zerbitzuarekin ere koordinatuko dira, honako hauei jakinarazteko:

- SOS DEIAK-i (112), dagozkion kudeaketak egin ditzan (anbulantzia bidaltzea, poliziaren presentzia eskatzea...)
- eta ospitaleko larrialdiei, biktima lekualdatuz gero

Nolanahi ere, emakumea artatzen duen lehen baliabidetik, garrantzitsua da

- Balizko krisiari, shock egoerari eta emakumearen beldurrei erantzutea
- Emakumeari egiteko gomendioak: Ez dutzatzea, ezta hortzak garbitzea ere. Ez aldatzea arropa, ez jatea eta ez edatea ezer aho bidezko erasorik gertatu bada, funtsezko proba posibleak desagerraraztea saihesteko

- Ez da behartu behar salaketa egitera emakumeak nahi ez badu, eta doako laguntza juridikoa jasotzeko aukeraren berri emango zaio, salaketa jartzea baldintza izan gabe.

Eta lehen baliabide horrek lagunduko dio ospitalera, URG protokoloa aplikatuko den lekura.

Ospitalean laginak biltzeari dagokionez, eta sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa indarrean jarri ondoren, non 48. artikuluan aipatzen baita osasun zerbitzuek lagin biologikoak eta beste ebidentzia batzuk jaso eta zaindu behar dituztela, biktima **ez da inola ere egongo salaketa aurkeztearen baldintzapean**, Osakidetzaren 14 urtetik gorako emakumeen sexu indarkeriaren aurrean osasun profesionalentzako jarduera gidaren arabera.

Garrantzitsua da biktimen idatzizko **baimen informatua** lortzea, egiaztatuta gera dadin, beste zerbitzu, erakunde edo sistema batzuetako profesionalei informazioa helarazi ahal izateko.

Emakumeak delitua salatzeako asmoa duela adierazten badu, Ertzaintzari ere jakinaraziko zaio, eta hark abokatuaren laguntzarako ofiziozko txandaz arduratzen den Abokatuen Elkargoari.


Ondoren, baliabide horiek, bai artatu zuen lehenengoak, bai Osakidetzak, emakumearen etengabeko jarraipena eta arreta egingo dute.

Biktima adingabea bada, Gizarte Zerbitzuei eta Adingabeen Fiskaltzari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzuari jakinaraziko zaie, hala badagokio, eta bulegoko ordutegitik kanpo bada, Foru Zerbitzuari, adingabeari laguntza eta babes emozionala emateko, bai eta laguntza soziojuridiko eta psikosozialeko zerbitzuei buruzko informazioa emateko ere. Adingabeek eurek aukeratutako pertsonen jakinarazi ahal izango dieten, betiere nahikoa heldua delako erabakiak hartzeko nahitako gaitasuna badu, eta, nolana ere, hamalau urtetik gorako adingabeei.

2.2. Orainsukoak ez diren sexu-erasoen aurreko arreta

Erasoa gertatu zenetik 240 ORDU baino gehiago igaro diren guztiak, jarduera koordinatuko protokoloaren arabera. Kasu horretan, laginak biltzeko prozedura alde batera uzten da, baina, era berean, emakumeak hala nahi badu, osasun-zerbitzuekin eta zerbitzu psikologiko espezializatuekin koordinatzen da.

ATENCIÓN URGENTE EN CASO DE AGRESIÓN SEXUAL



3. LARRIALDIKO ARRETA

Egoera hauetan:

Emakumeak bere osotasun pertsonalaren arriskua du
Ahalik eta azkarren jardun behar da

Hauek dira larrialdi-kasuetan arreta eman dezaketen zerbitzuak: Udaltzaingoa, Ertzaintzara bideratu du, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, US Larrialdiko Foru Zerbitzuak eta dagokion ospitalea.

Litekeena da emakumeak presako neurriei uko egitea, hala nola larrialdiko harrera-etxe batera sartzeari edo salaketa jartzeari. Kasu horietan, teknikariek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- ✓ *Emakumeari, seme-alabei eta, baldin badaude, mendeko pertsonen segurtasuna emango dien plan bat ezartzea.*
- ✓ *Kasuaren jarraipena egitea*
- ✓ *Beste zerbitzu batzuekin koordinazio ona ziurtatzea*

Nolanahi ere, baliabideekin harremanetan jarraitzearen eta oinarrizko gizarte zerbitzuetara jo ahal izatearen garrantzia azpimarratuko da.

Emakumearen balizko krisia landuko da, laguntza emanez eta harentzat eta, hala badagokio, haren kargura dauden pertsonentzat hartu beharreko segurtasun neurrien berri emanez.

3.1. Larrialdietan esku hartzeko prozesuan **laguntzea**

Biktimaren egoerak hala eskatzen badu, Oinarrizko eta Premiazko Gizarte Zerbitzuen artean baloratuko da laguntza estuago baten beharra. Ertzaintzaren presentzia EBArekiko arriskuaren balorazioa moderatua, handia edo berezia den egoeretara mugatuko da. Oinarrizko arrisku-maila bat baloratzen denean, emakumeak bere konfiantzako pertsona bat aukeratu ahal izango du larrialdiko esku-hartze prozesuan laguntzeko. Emakumea artatzen duen eragileak ezin badu laguntza hori eskaini, haren konfiantzazko senide edo pertsona batek egin ahal izango du.


3.2. Larrialdietako **ostatua**

Emakumea eta haren ardurapeko pertsonak **Emakumearen Zerbitzuko Larrialdietako Harrera Zentrora** bideratzea baloratuko da, **Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuaren bidez**, honako kasu hauetan:

- Emakumeak bere ardurapean mendekotasun handiko pertsonaren bat badu eta etxetik mugitzeko aukerarik ez badu:
- Emakumearentzako eta haren kargura dauden pertsonentzako arrisku-arrazoiak
- Horien egoera emozionala eta/edo fisikoa
- Adingabeak edo emakumearen ardurapeko mendeko beste pertsona batzuk egotea

Hura zaintzen duten gizarte-zerbitzuek bermatu beharko dute pertsona horrek arreta egokia jasotzen duela (etxez etxeko laguntza puntual baten bidez), emakumeak bere egoera fisiko eta emozionala salatzeko eta/edo artatzeko izapideak egin ahal izan ditzan, eta horretarako dagoen baimen informatua sinatuta baimenduko dituzte neurriak.

3.3. Adingabeen arreta



3.4. Informazioa eta aholkularitza eta bideratzea

Lehen instantzian artatzen duen baliabidea edozein dela ere, eskura dituen udal, foru eta autonomia baliabideen berri emango zaio emakumeari. Horretarako dagoen baimen informatua sinatu ondoren aktibatuko dira neurriak.

Informazio hori edozein baliabidek eskaini badezake ere, lehentasuna emango zaio gizarte-zerbitzuetara bideratzeari eta horri buruzko informazio gehiago jasotzeari.

Bereziki azpimarratuko da haiengana jo ahal izango duela, salaketa jarri edo ez.

Emakumeari, izandako krisi-egoera egonkortu ondoren, bere eskubideei buruzko informazioa eman behar zaio. Eskubide horiek honela eratzen dira:

- ESNATU doako laguntza psikologikoa
- Aholkularitza juridikoa doakoa da, eta Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren (OJZ) eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) bidez kudeatzen da.
- Harrera-etxea, etxetik irten behar badu
- Gizarte langileak izapidetzen lagundu beharko dituen laguntza ekonomikoak

Gizarte Zerbitzuek erraztu eta azaldu behar diote emakumeari babes-agindua erabiltzeko aukera eta hura eskatzeko modua, epaitegira edo egoki iritzitako beste batzuetarako ondoriozko deribazioak, zerbitzuen arteko komunikazioa trukatzeko biktimaren baimen informatua eta arriskuaren balorazioa.

Eskubidea da biktimari, bere beharren arabera, jakinaraztea ez dela salaketa jarri behar bere zerbitzuak eskuratu ahal izateko. EAEko Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Biktimei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Akordioan xedatutakoaren arabera

Zerbitzu autonomikoak

- SATEVI 900 840 111 LARRIALDIAK 112 edo BIKTIMARI LAGUNTZEKO TELEFONOA 016
- SAV Biktimentzako informazio- eta orientazio-zerbitzua epaitegian.
- LANBIDE, prestakuntza, birgizarteratze- eta enplegu-programak eta, behar izanez gero, DSBE eta EPO prestazio ekonomikoak kudeatzen ditu.

Estatuko zerbitzua


- SPEE (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, SEPE). Beste diru-laguntza batzuk izapidetzeko, hala nola RAI. (Estatuko Zerbitzua)

3. 5.- Esku hartzeko prozesuaren jarraipena eta amaiera

Gizarte Langilea da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik, erreferentziazko figura eta emakumearekin aldizkako jarraipena koordinatu eta egiteaz arduratzen den pertsona. Jarraipen horren helburua da behar berri bat sortzen den bakoitzean erakundeen jardueretan berriro biktimizatzea saihestea.

Era berean, Gizarte Langilea da esku hartzeko prozesua amaitzearen arduraduna, emakumea etxez aldatzen delako, emakumeak berak eskatzen duelako edo esku hartzeko prozesua amaitutzat jotzen delako.

ATENCIÓN URGENTE EN CASO DE MALTRATO



3.- Lesioen partea: epaitegiari edo fiskaltzari ofizioz jakinaraztea emakume helduen eta adingabeen aurkako indarkeria matxistaren egoerak, adingabearen interes gorenaren printzipioaren arabera, emakume helduen kasuan emakumearen borondatearen autonomia gailentzen da –salbuespenezko kasuetatik kanpo. Horrela, Euskadin genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean osasun-arloko profesionalentzako jardura-gidan jasotako aurreikuspenak bete beharko dira: “Ez-eraginkortasunaren printzipioa”, “Salaketa judizialaren alderdi etikoak”, “Komunikazio judiziala” eta II. eranskina: Lesioen partea

4. OHIKO EGOERETAKO ARRETA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan, gure zerbitzuetara jotzen duen emakumea eroso egongo den ongizate-eremu batean egon dadin saiatu behar da, etenik gabeko entzute aktiboarekin, intimitatea bermatuko dion arreta fisikoko leku batean, konfidentziasuna bermatuz.

Lehenik eta behin, emakumearen egoera baloratu behar da, emakumearen beharrianena, seme-alaba adingabeena eta, baldin baditu, mendeko pertsonena.

1/2004 Lege Organikoaren 19. artikulua, gizarte-laguntza integralerako eskubideari buruzkoak, hauxe dio lehenengo puntuan: *“genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute arreta, larrialdi, laguntza eta harrerako eta osatze integraleko gizarte-zerbitzuak izateko.*

Autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek zerbitzu horiek antolatzean, printzipio hauek bete beharko dituzte: etengabeko arreta, premiazko jarduna, prestazioen espezializazioa eta diziplinartekotasun profesionala”.

Gizarte Laneko teknikariaren **esku-hartzearen xedea** definitu dezakegu:

. Genero-indarkeriaren biktima den emakumeari **laguntzea**, bere egoeraren alderdi guztiak argitzen lagunduz. Berregituraketa kognitiboa deritzonari laguntzea, pertzepzio deformatuak aurrez aurre jarri eta alternatibak proposatuz.

. Eskura dauden baliabideei buruzko **informazioa ematea**, erabakiak ahalik eta baldintza onenetan hartu ahal izateko.

. Emakumearen harreman-horizontea zabaltzen **laguntzea**, baliabide emozionalak zabalduz.

Kasu guztietan erabili beharreko **BALIABIDEAK** hauek dira:

- **Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren aldetik arreta ematea**, beharrezkoa balitz salaketa jartzea edo ikerketa abiatzea, eta, beharrezkoak balira, Ministerio Judizialarekin eta Abokaturza Zerbitzuarekin batera jardutea. Ertzaintzan edo Udaltzaingoan bertan gomendatuko da emakumearen arreta emakume agente batek egitea, emakumearengan konfiantza sortzeko eta erresistentziak eraisteko.
- Ageriko edo ustezko lesioen kasuan, **Osasun Zerbitzura, Osakidetza edo erreferentziazko ospitalera laguntzea**; une oro bermatuko da dagokion zerbitzu medikoari laguntzea. Anbulantzia, polizia-ibilgailuan edo taxian. Joan-etorria taxian egiten bada, egindako gastua Ugao-Miraballesko Udalak ordainduko du. Ospitaleko langileek egingo dituzte dagozkion kudeaketak, eta biktimari lesioen parte emango diote.
- **Aholkularitza juridikoa** genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat eta haien seme-alabentzat eta mendeko pertsonentzat. Abokatu-laguntza hori doakoa izango da, eta **Clara Campoamor edo BLZ zerbitzuen** salaketa eta ematen duten aholkularitza juridikoa alde batera utzita, genero-indarkeriaren txanda espezifiko ofiziozko abokatu baten bidez ondoren salaketa aurkezteko unea prestatzeko helburua izango du.

- **Arreta psikosoziala.** Hauek dira **emakumeak babesteko eta laguntzeko zerbitzuaren helburu espezifikoak**:
 - Zerbitzuaren erabiltzaileei segurtasuna eta lasaitasuna ematea
 - Zerbitzuaren erabiltzaileen autoestimua eta bizi-kalitatea sustatzea, beren ohiko ingurunean laguntza-sare sozial bat sortzen lagunduz eta erasotzaile ez diren familia-eta gizarte-ingurunearekin erabateko segurtasunez harremanetan egotera animatuz.
 - Erabiltzaileen egoeraren jarraipen aktiboa egitea, arreta zentroarekin aldian behin harremanetan jarritz.
- **Etiket berehala irtetea.** Egoera Gizarte Zerbitzuen arreta-ordutegian gertatzen bada, gizarte-langileak beharrezko izapideak egingo ditu. Egoera Gizarte Zerbitzuen arreta ordutegitik kanpo gertatzen bada, emakumea foru zerbitzuko Gizarte Larrialdietako Zerbitzura eramango da.
Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren mendeko Larrialdiko Harrera Zerbitzu bat dago. Zerbitzu horren bidez, gizarte-zerbitzuen ohiko lan-ordutegitik kanpo ostatua behar duten emakumeak hartzen dira harrera-zentro batean. Baliabide horretara iristeko bidea 112 da (SOS DEIAK).
- **Harrera egiteko eta etxebizitza eskuratzeko baliabideak** Erakunde publikoek planteatzen duten helburu nagusia da biktimek beren etxebizitzak utzi behar ez izatea, baina hori saihestezina denean baliabide bereziak mobilizatu daitezke biktimen autonomia mailaren arabera.
- Emakumeak seme-alaba adingabeak edo bere ardurapean mendeko pertsonak baditu, Ugao-Miraballesko Gizarte Zerbitzuak **ikastetxearekin harremanetan** jarri beharko dira, amak horretarako baimena eman ondoren egoeraren berri izan dezaten.
